

## **Bilbaopoesia literatur jaialdiko ardatza hiri poesia izango da**

**Hilaren 14tik 23ra bitartean, kontzertuak, errezitaldiak eta elkarrizketak egingo dituzte Bidebarrietan**

ERREDAKZIOA. BILBO

Bilboko Udalak antolatutako Bilbaopoesia literatur jaialdiak hiri poesia izango du ardatz. Hilaren 14a eta 23a bitartean kontzertuak, errezitaldiak eta elkarrizketak egingo dituzte Bidebarrietako liburutegian. Oskorrik hasiko du, Gabriel Aresti bizsitan kontzertuarekin. Hiru egun geroago, esaterako, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariek eta Miren Agur Meabe idazleak Kafkaren aulkia poesia errezitaldia egingo dute, Pello Ramirez musikariarekin. Poeten arteko elkarrizketa izango dute Luis Alberto Cuenca eta Jose Fernandez de la Sotak 18an, eta azken egunean, Pablo Fidalgo-Lareok bere azken poema liburua aurkeztuko du.